


JIM VRHEGYI / AP




■ Faraoiak iratzartzeko zorian

Egiptoko, EEBetako, Frantziako, Italiako eta Jordaniako hegazkin militarrek beren abilezien erakustaldia egin dute aste honetan Egipton, Gizako piramideen inguruan. Gora batean, txirikor-da bat eginez behera bestean, halaxe ibili ziren, jostari-jostari. Zaratarekin faraoiak esnatzen badira izango dira kontuak!

■ Heriotza aulkia 'hiltzear'

EEBBetako Auzitegi Gorenak aintzat hartu du aulki elektrikoa debekatzeko eskaera, eta gai hori eztabaidatzen hasi da. Aulki elektrikoa mingarri eta krudelegia dela argudiatzen dute eskaeraren egileek, eta Auzitegi Gorenak kontuan hartu du aurreneko aldiz. Beraz, heriotza aulkia hiltzear izan daiteke. Heriotza zigorrak, ordea, osasun onean segitzen du.

TALLAHASSEE / AP



CHARLES HUTZLER / AP



■ Txinako Gobernuaren arantza

Falung Gong sektaren agerpenak erabat galaraziak dauzka Txinako Gobernuak, baina, hala ere, talde horretako kideek ez dute etsitzen. Ostegunean, esate baterako, Pekingo hotel batean bildu ziren beren ariketa izpiritualak egiteko. Pekingo Gobernuak beldur handiagoa dio Falun Gong sektari beste talde disidente politikoei baino.

LAVANDEIRA JR. / EFE



■ Xabierri gorazarre

Santu nafarraren omenez, erromesaldi bitxia egin dute bost lagunek: budistak dira batzuk, kristauak besteak. Xabierko gaztelutik abiatu ziren eta Santiagora heldu berri dira, 752 kilometro oinez egin ostean. Aurten bete dira 450 urte Xabier Japoniara heldu zela, eta horixe ospatu nahi izan dute.

■ Mussolini gogoan

Benito Mussolini diktadore italiarra ahazteko gogorik ez dute batzuek. Iragan ostegunean neofaxista talde bat bildu zen, urtero legez, Erromako Venice plazan, faxismoaren eta diktadore zena-ren aldeko aldarrikapena egiteko. Izan ere, egun horretan bete ziren 78 urte Erromako Martxa egin eta Mussolinik agintea hartu zuenetik.

PLINIO LEPRI / AP

